

AURKEZPENA

Gu Leire Alustiza, Naroa Elozegi eta Unai Etxeberria gara eta gure taldearen izena KONBI da. Gure proiektua panpin transexuala da.

Produktu hau bi helbururekin gauzatu dugu, batetik, ingurumenean aurki daiteken kutsaduraren arazoari eta berziklapen prozesua desegokiaren arazoari aurre egiteko, eta bestetik, gorputz normatiboarekin identifikatzen ez diren hurrek eredu bat izateko eta haur guztiak dibertsitatean hazteko.

Idea hau telebista ikusten geundela bururatu zitzaigun. Gaueko albistegia ikusten ari ginela, bi albistek harritu gintuzten. Batek plastikoak gure ingurumenean sortzen duen kutsaduraz hitz egiten zuen eta besteak 9 urteko haur transexual baten suizidioaz. Honi irtenbide bat ematea oso garrantzitsua zela iruditu zitzaigun eta proiektu hau bururatu zitzaigun.

